



2019eko OTSAILAREN 19EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2019/0219

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi.Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria.Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAIZ ERRENDA

- 1.-2019eko urtarrilaren 22ko Bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Udaleko lursaileen probetxamendurako deialdia arautuko duen baldintza plegua onartzea .
- 3.-Ur hornidura eta saneamendu lanen kontratazio mahaiaren proposamena aztertu eta dagokiona erabakitzea.
- 4.-Alkateak eman dituen ebazpenak adieraztea :
 - 2018-52....Futbol aretoa
 - 2018-53... Peñaskal fundazioa 2018
 - 2019-1....Pilastes ikastaroko laguntzak
 - 2019-2.....Yoga ikastaroko laguntzak
 - 2019-3.....GAEL
 - 2019-5....Posta zerbitzuaren atxikimendua kontratazio zentralera .
- 5.-Galderak eta eskaerak



1.-2019-01-22 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2019-01-22ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-UDALEKO LURSAILEEN PROBETXAMENDURAKO DEIALDIA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA .

Baliarraingo udalaren jabetzako poligono 1eko 195 d partzela , 36.683 m2 dituen katastroaren arabera , eta poligono 1eko 196 a , 11.829 m2 eta 196 b, 24.684 m2 dituen , katastroaren arabera , 2019eko martxoaren amaiera arte Jon garmendia Zubeldiak erabiltzeko eskubidea du .

196 a partzelaren barruan herri sagastia dago , eta bertako sagarra biltze lana udalak burutzen du .

Jon garmendia Zubeldiak , bere jarduera utzi egiten duela eta , aipatutako lur hauen probetxamendua arautzeko araudia onartu eta bide batez herritarren artean deialdia egitea erabaki da .

Lehiaketa arautu duen baldintza pleguak honela dio :

UDAL JABETZAKO LURTSAILAK, NEKAZAL PROBETXAMENDURAKO ERABILTZEKO BALDINTZA PLEGUA.

Deialdiaren xedea: Udal jabetzako lurtsailen, polígono 1eko 195 d, 196 b eta a partzelaren barnean sagar landareak daude. Hauetatik sagarren biltzea udalak egingo du, eta bertako belarra biltzea adjudikatarioari dagokio. Eta aipatutako partzelen ,lehen Abali Goeneko baserrikoak, erabileren adjudikatzea lehiaketa bidez.

Erabilera nekazal probetxamendurako eksklusiboki izan behar du, hau da belarra jaso eta neguan artzaiak erabiltzeko. Artzaia neguan ibiliko da ohikoa den moduan , eta horren berri aurrez udalari eman behar zaio .

Erabileraren epea: 2019eko apirilaren 1etik 2024eko martxoaren 30 a.



Erabileraren prezioa: 1.803,04 euro lehen urteko prezioa. Bigarren urtean, prezio honi % P.I.K-ko igoera ezarriko zaio. Eta urtero P.I.K. igoera % erantsiko zaio.

Deialdian parte hartu dezketenak: Deialdian parte hartu dezaketenak baldintza hauek bete behar dituzte:

- Nekazal ustiapenaren titularra izatea.

Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak, martxoaren 12rako aurkeztu behar dira.

Lehiaketaren balorazioa:

Eskatzaileen artean honako balorazioa egingo da:

- Nekazal hustiakuntzatik eksklusiboki bizitzeak 5 puntu.
- Baliarraingo udalerrian erroldatua egotea 5 puntu

Lehiaketan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- E.N.A.-ren kopia.
- Lehiaketan parte hartzeko eskabidea betetzea.

Epealdiaren amaiera

Adjudikazioko epealdia amaitzen denean baldintza hauek bete behar dira:

- Lurtsaila hartu bezela utzi beharko da.
- Lurtsailean egin behar diren hobekuntzak, udalaren baimenarekin izan beharko dute eta epealdia amaitzen denean, hobekuntzen indemnizazio edo ordainketa eskubiderik ez du izango.
- Terreno bazterrak ondo garbituta uztea.

Erantzukizunak



Adjudikatioak bere utzikeri edo axolakabekeriagatik hirugarrenengo bati gerta dakioken kalteen erantzukizuna, zibila edo penala, bere ardura izango da.

Zigorak

Adjudikatioak dagokion erabilpena ez ematea eta baldintza plegua ez betetzeak ondorio hauek ekarriko ditu:

- Adjudikazio hitzarmena indargabetzea.
- Berriro lehiaketan parte hartzeko eskubidea ukatzea.
- Egindako kalteen balorapena egin eta dagokion isuna ezartzea.

Baliarrainen, 2019eko otsailaren 14ean.

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Probetxamendua arautuko duen baldintza plegua onartzea .
- 2.-Deialdia , herrian egitea eta martxoaren 12 arteko epea jartzea izena emateko.

3.-UR HORNIDURA ETA SANEAMENDU LANEN KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Baliarraingo udalak Baliarraingo zenbait baserrietara ur hornidura eramatea eta saneamendu lanak egiteko eta beroen esleipena arautuko duen baldintza plegua , 2018eko abenduaren 18eko osoko Bilkuran onarpena eman zitzaion .

Osoko Bilkurak onartutako erabakia jendaurrean jarri zen , Jaurlaritzako Kontratazio profilean argitara eman zelarik .

Eskaintzak aurkezteko epea, 2019eko otsailaren 5ean amaitzen zen .

Eskaintzak irekitzeko mahaia 2019eko otsailaren 12ean eratu zen eta bertan ireki ziren jasotako eskaintzak , ondorengo akta jaso zelarik :

UR HORNIDURA ETA SANEAMENDU LANAREN PROPOSAMENAK IREKITZEA



Baliarrainen , 2019eko otsailaren 12ean , Areto Nagusian , bildu ziren ,
Olatz Iriarte , alkatea
Jokin Garmendia , zinegotzia
Ane Garmendia , Zinegotzia
Luis Lopez , Zinegotzia ,
Eta Udaleko idazkaria den Nekane Lopetegi Etxeberria .

Aurkeztu diren proposamenak , lau izan dira : Excavaciones Bergaretxe,
Excavaciones Soroa, Otegi eraikuntzak , eta Eregi herrilan eta zerbitzuak .

Eskaintza ekonomikoak :

Excavaciones Bergaretxe	45.811,00 € beza kanpo
Excavaciones Soroa	52.651,60 € beza kanpo
Otegi eraikuntzak	45.210,88 € beza kanpo
Eregi	38.297,26 € beza kanpo

Eregin enpresako ordezkariak bertan ziren , eta deialdian eskatutako prezio unitarioak aurkeztu ez zirenez eskatu egin zitzaizkien lehen bait lehen aurkezteko .

Eskaintza ekonomikoak alde batetik, eta fosaren ezaugarriak eta hodien loturak, bestetik nolakoak izan behar diren aztertzeko udaleko arkitektoari eskatzeko geratu zen .

Eta hurrengo Osoko Bilkuran esleipena erabakitzeko geratu zen .

Udaleko arkitektoan egindako txostenak honela dio :

TXOSTEN TEKNIKOA

GAIA: Baliarraingo udalerriko lau baserrietako ur hornidura eta hamaika baserrietako ur beltzen trataera burutzeko obra-lanak adjudikatzeko txostena.

ESKATZAILEA: Baliarraingo Udala.

Baliarraingo udalerriko lau baserrietako ur hornidura eta hamaika baserrietako ur beltzen trataera burutzeko obra lanak burutzeko



kontratuaren esleipena prozedura ireki sinplifikatu laburtu bidez egin da, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen arabera.

Hauek izan dira esleipenean parte hartu duten enpresak:

- EXCAVACIONES BERGARETXE, S.L. (Ordezkarria: Patxi Bergaretxe Loiola)
- EXCAVACIONES SOROA, S.L. (Ordezkarria: OTEGUI ERAIKUNTZAK, S.L. (Ordezkarria: Juan Jose Otegui Goicoechea)
- EREGI HERRILAN ETA ZERBITZUAK, S.L. (Ordezkarria: Joseba Otermin Gaztañaga)

Proposamen ekonomikoari dagokionez, hauek dira enpresa ezberdinek aurkeztutako proposamen ekonomikoak eta beherapen portzentaiak lizitazioarekiko (Guztira B.E.Z. kanpo 46.761,00 €):

Proposamena guztira B.E.Z kanpo		Beherapen portz.
- EXCAVACIONES BERGARETXE, S.L.	45.811,00 €	- % 2,03
- EXCAVACIONES SOROA, S.L.	52.651,60 €	+ % 12,60
- OTEGUI ERAIKUNTZAK, S.L.	45.210,98 €	- % 3,31
-EREGI H. ETA ZERBITZUAK, S.L.	38.297,26 €	- % 18,10

Ondorioz, proposamen ekonomikoari dagokionez, proposamenik onuragarriena EREGI HERRILAN ETA ZERBITZUAK, S.L. enpresak aurkeztu duena dela kontsideratzen da, bere proposamen ekonomikoa 38.297,26 € gehi B.E.Z. izanik.

Guzti hau, beti ere alde batera utzirik txosten juridikoak dioena.

BALIARRAIN, 2019 KO OTSAILAK 19.
MAIDER ROMO ARIZMENDI, arkitektoa.

Arkitektoak txosten honez gain beste txosten bat ere idatzi du, fosaren ezaugarriak eta ur hodian loturen inguruan Aldundiako eta ur kontsurtzioko hainbat teknikariek emandako iritzien inguruan. Eta txosten honetan jasotakoa ere zinegotziei eskura izan zaie.

Mahaikideek, ERABAKI DUTE:



BAT .-Baliarraingo ur hornidura eta saneamendu lanak EREGI enpresari esleitzea ,ondorengoa kontutan hartuta :

Ur kontsorzioak Irabi eta Irabi azpi baserrietara ura eramatea lanak 2019 urtean beraiek exekutatu dutela eta , eregik egindako eskaintza ekonomikotik ezabatzea :

IRABI AZPI:

E06. Arketa eta kontagailua	310,00
E025.Zanja irekitzea	940,50
E026 63 mmko poliuterano hodia	1.210,00

IRABI:

E06. Arketa eta kontagailua	310,00
E028.Zanja irekitzea	684,00
E08 63 mmko poliuterano hodia	620,00

GUZTIRA	4.074,50 €
G:G ETA B.I...%16.....	651,92€
Guztira	4.726,42€
Beza %21.....	992,55 €

GUZTIRA5.719,00 €

BI.- Obra egin behar den lur jabeek jakinaren gainean egonagatik , bakoitzarekin berriro hitz egitea hasiera eta amaiera noiz izango diren adieraziaz .

HIRU .-Baldintza pleguetan agertzen den behin betiko bermea , 2.338,00 eurotakoa udal honetan uztea.

LAU.-Obra dela eta erabiltzen nahiz eremu publiko nahiz eremu pribatu , orain dagoen bezala txukun uztea .

BOST.-Erabakiaren berri deialdian parte hartu duten guztiei jakinaraztea .

4.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK ADIERAZTEA :

Ondoren adierazten diren ebazpenak eman ditu alkateak azken bilkuratik gaur arte :

2018-52....FUTBOL ARETOA.PILOTALEKU ERABILERA



2018-53... PEÑASKAL FUNDAZIOA 2018
2019-1.....PILASTES IKASTAROKO LAGUNTZAK
2019-2.....YOGA IKASTAROKO LAGUNTZAK
2019-3.....GAEL.PILOTALEKU ERABILERA
2019-5.....POSTA ZERBITZUAREN ATXIKIMENDUA
KONTRATAZIO ZENTRALERA .

Mahaikideek jakinaren gainena geratu dira .

5.-GALDERAK ETA ESKAERAK

BAT.-Guraso elkartetik ondorengo galdera luzatu dela jakitera ematen da .

Korrika dela eta herriko gurasoek korrika txikia antolatu nahi dutela eta ekintzen barruan Mago baten ikuskizuna eskaini nahi dutela . Horren balioa 600 eurotako dela esan dute .

Korporazioak , galderaren inguruan ondorengo erantzuna eman dute :
Guraso elkarteak urtean zehar egiten dituen ekintzak , urte amaieran udalari txosten batetan luzatzen dizkiola eta udalak egoki ikusten dituen ekintzak eta hurrei zuzenduak direnak laguntzen dituela .beraz , kasu honetan ere , ekintza egiten bada , guraso elkartearen gain egin beharko dela eta urte amaieran txostenean jaso eta udalari aurkeztu beharko zaiola .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak gaueko 20.45etan.

Alkateak

Idazkariak